

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Pazko-goiza

Mila legoa luze eta bi muga latz bitarte, zazpi lurralde apartatutan banatutako herri menditsu bezain itsasotsu bat zen zerupean. Zori gaiztoko militarrek eta politikariek hautsi eta zabartutako herri eder bezain itsusi hartan, euriak hodeitzarra hezetzen zuen, lurra busti ordez.

Bada, ezinezko herri hartan, aitaita Paulinok festarako deia egin zuen behinola, herri inausi hura josteko zazpi maratilen atea irekitzeko giltza aurkitu zuelakoan. Jaia jai, haserre zeukan andrea, amama Regina. Reginak zioen hausnarketarako egin behar zela dei, jairako baino: zehazteko, elkartu beharrekoa zertarako eta nola elkartu.

Festa eta hausnarketa aitzaki, ika-mika eta matraka ederra jaio zen etxe hartan. “Ez haiz nirekin ezer adosteko gai, Regina”. “Adostu hirekin, nork ezer? Nahiago, mando bera birritan erosi Zumarragako ferian!”.

AITONAREN BRINDISA. Etxean larri, baina aurrera egin zuen Paulinok festarekin: banderak eskegi ziren, orkestrak kontratatu, pregoiak idatzi, tabernak ireki... Jendea elkartu zen, erruz. Zazpi lurraldetan bereizitako herri hartan, Pazko-egun handian egin zen, ba, festa.

Gertakari zoriontsua izan nahi zuen ekitaldiak: eritasunaren osteko esnekatilu beroaren modukoa, edo elurtza bitarteko hostopil gozoaren antzerakoa. Anis-tantoarekin hasi zuten aitaitak-eta egun handia, zainak esnatu eta harrotzeko.

Eta horrela, urtero ospatu zen festa. Inausitako lurraldeen zazpi ordezkariak bat egiten zuten frontoian, plazan, hamaiketakoan eta bazkalondoan. Norgehiagoka politik ikusten ziren han, alderdietako eta sindikatueta buruzagien artean. Zortzidun adigarriak jotzen zituzten txistulariek, borroka politikoetatik urrun.

Bertso eta bertso artean, halako batean,



INIGO AZKONA

mikrofonora hurbildu, edalontzia jaso eta lau haizetara bota zuen aitonak: “Lagunak, Zazpitegiko Estatu Batuak sortu behar ditugu”.

AMONAREN TXILARRA. Reginak eta Paulinok aspaldi erabakia zuten nor bere aldetik joatea lotara, eta nor bere aldetik erositetara, jaietara, oporretara... Horrelaxe bizi zuten, bizi, Paulinok eta Reginak beren artekoa.

Pazko-goiz batean, amonak isiltasuna hamaika pusketatan hautsi, eta esan egin zuen irratian ezen, festa hura molde huts eta ohitura zaharkitu bihurtua zela. Hitzak hitz, hezurrik gabeko errutina iheskor bilakatua zela hura guztia. Funtsezkoa bazterturik egiten zela jai-edo hura.

Goizean hori, eta eguerdian mendi-itzulia egitera atera zen Regina. Aspalditxoan, txilarretako txantxangorriarekin lake-tua zen amama. Harekin izaten

zituen elkarrizketa luzeak, txoria itzultzen zenean bere zereginetatik: urruneko printze-printzesen ezteguetatik nahiz hurbileko neska-mutikoen pilota-partidetatik.

Egun hartan, ez zekien Reginak nola barrua hustu, nola esan eta zelan adierazi erraetan sufrezko garrak eragiten zizkion hura. Esan nahi zion txoriari ez zuela ikusten zertarako Zazpitegiko Estatu Batuen kalapita hura guztia...

Baina, txoriak igarri eta, amonak ahoa ireki orduko, lumadunak esan zion gizakiari: “Euskal herria piz badadi, euskarak piztuko du; milikeriak eta koipekeriak dira beste guztiak, jakina; baina, euskarak ere aberriak behar ditu, izan horiek Hirutegi, Zazpitegi ala Hamartegi”.

Kresala eta otea usaintzen diren muino batetik, han ikusten du Reginak Paulino, plazatik gora datorrela, ikurriñaxal moduan jantzita... ■

Pazko-goiz batean, amonak isiltasuna hamaika pusketatan hautsi, eta esan egin zuen irratian ezen, festa hura molde huts eta ohitura zaharkitu bihurtua zela. Hitzak hitz, hezurrik gabeko errutina iheskor bilakatua zela hura guztia



irudia:

Antton Olariaga

